

# Migratzaileen harrera, gutxiagotutako hizkuntzen testuinguruan.

*Administrazioz kanpoko harrera-eragileak eta hizkuntzen trataera, euskararen eremu geolinguistikoan*

HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sarien IX. Edizioko  
**LEHEN SARIA (2016)**

**Mario Zapata**

*Soziologoa eta euskara teknikaria*

MARIO-ZAPATA@hotmail.com

Sarrera-data 2016-09-30 / Onartze-data 2016-12-02

**Laburpena.** Gure lanaren testuinguruan zeharkakoak diren bi elementu uztartzen dira: gutxiagotutako hizkuntzen kudeaketa eta kultura-aniztasunaren kudeaketa. Migratzaileek, helmugara iristean, maila bateko zein besteko harrera funtzioa egiten duten eragileekin egiten ohi dute topo. Horiengandik jasotako informazioek zein jarrerak migratzaileen lehenengo urratsetan eragina izaten ahal dute, baita ondorengo bidea baldintzatu ere. Gutxiagotutako hizkuntzen kasuan, garrantzi berezia hartzen du elementu horien kudeaketak. Ikerketa honetan euskararen eremu geolinguistikora etorritako migratzaileek jasotzen dutena aztertu dugu, hizkuntzen trataeren inguruan. Hain zuzen ere eragile sozialek transmititzen dizkieten informazioa, irizpideak eta jarrerak, euskararen inguruan zein migratzaileen hizkuntzen inguruan. • **Hitz gakoak:** *Soziolinguistika, Gutxiengo linguistikoak, Hizkuntza-politika, Kultura-aniztasuna, Kultur integrazioa.*

**Abstract.** In the context of our work two transversal elements cross: the management of the situation of the minorized languages, and the management of the cultural diversity. When migrants reach their destination they meet with outside agents that function as reception agents, at one level or another. The information and attitudes that are transferred by these agents may have influence on the first steps of the migrants. They may even constrain their later trajectory. In the case of the minorized languages, the management of these elements take on special importance. In this research we have analysed, from the point of view of the language approach, what the migrants (who have arrived to the geo linguistic space of the Basque language) receive from the reception structured agents. In particular, we have analysed in detail the information, the criteria and the attitudes that are transferred from the Non Public Administration Agents, both with regard to the Basque language and to the language of the migrants. • **Key words:** *Sociolinguistics, Language minorities, Language policy, Cultural diversity, Cultural integration.*

## 1. SARRERA

Hurrengo lerroetan aurkezten den lanaren oinarria 2012. urtean hasitako ikerketa kualitatibo bat da. Hain zuzen ere, hartan Bilboko GITE-IPES elkartearen laguntzarekin ikerketa-proiektu honen definizioa egin zen. Proiektu horren barruan, lehenengo urrats gisa, aniztasun etnokultura-larekin loturiko mugimendu asoziatiboa ezagutzeko azterketa lan sakon bat egin genuen. Emaidza gisa, eragile sozialen gida bat argitaratu zen (Zapata 2013). Ondoren, 2012/2013 epealdian, ikerketa kualitatiboaren landa-lanari ekin genion eta materialaren esplotazioa 2005ean egin zen. Ikerketa hau marko akademiko batean jorratu da, hemen aurkezten den artikulua ikerketa aplikatu horretan xehetasunez garatutako emaitzaren laburpena da.

### Ikergaiaren azalpena eta formulazioa

Lan honen izenburua ikergaiaren definizioaren abiapuntua dugu.

Lanaren testuinguruak gutxiagotutako hizkuntzen egoera hartzen du oinarri, hain zuzen ere, euskararen kasua.”

Hori abiapuntu, lan honetan migratzaileek jasotzen duten harrera aztertu dugu, zehazkiago, administrazioz kanpoko harrera-eragile formalen edo egituratuen aldetik migratzaileek jasotzen duten harrera.

Harrerari dagokionez, kulturarekin eta, zehazkiago, hizkuntzekin loturiko elementuak aztertu dira: ez soilik euskararekin loturikoak, baita kultura-aniztasunaren adierazpena diren hizkuntza guztiekin loturiko elementuak ere. Ondorioz, hizkuntzekin loturiko elementuak aztertzen dituenen bi norabideetako begirada erabiltzen du. Hain zuzen ere, aztergai nagusia bertako gutxiagotutako hizkuntza —euskar— izanik, migratzaileen jatorrizko hizkuntzak ere aztergai badira.

Hortaz, interakzioan dauden ondorengo bi elementu hauetan arreta jartzen du lanak. Batetik, gutxiagotutako hizkuntzen egoeraren kudeaketa, maila bateko zein besteko hizkuntza-politikekin loturikoa. Bestetik, kultura-aniztasunaren kudeaketa eta, kasu honetan, bereziki, immigrazioarekin loturiko kultura-aniztasunaren kudeaketa, harrera jardueren azterketan zentratuturik.

Ikergaia gehiago zehazte aldera, migratzaileek, helmugara iristean, maila bateko zein besteko harrera-funtzioa egiten duten eragileekin egiten ohi dute topo. Zeregin horretan, izaera ezberdineko egiturak aurki

**Lan honetan migratzaileek jasotzen duten harrera aztertu dugu, zehazkiago, administrazioz kanpoko harrera-eragile formalen edo egituratuen aldetik migratzaileek jasotzen duten harrera.**

**Aztergai nagusia bertako gutxiagotutako hizkuntza —euskar— izanik, migratzaileen jatorrizko hizkuntzak ere aztergai badira.**

**Aniztasun  
etnokultural  
endogeno hori  
egoera  
asimetrikoan  
dagoenean,  
baliagarriak ote  
dira aniztasun  
kulturalaren  
kudeaketarako  
eredu orokorrak?**

ditzakete: *sare informala* deituko duguna (senideak, herrikideak...) eta egituratua dagoen *sare formala* delakoa (administrazioak zein gizarte eragileak).

Batzuen zein besteengandik jasotako informazioek zein jarrerak migratzaileen lehenengo urratsetan eragina izaten ahal dute, baita ondorengo bidea baldintzatu ere.

Gutxiagotutako hizkuntzen kasuan, hain zuzen ere, garrantzi berezia hartzen ahal dute elementu horien kudeaketek, testuinguruan gatazka edo tentsio kulturalako elementuak agertzen direlako.

Hortaz, ikerketa honetan ondorengo hau aztertu dugu: euskararen espazio geolinguistikora etorritako migratzaileek harrera-eragile egituratuen aldetik zer jasotzen duten, hizkuntzen trataeren ikuspuntutik. Hain zuzen ere, hau aztertu nahi dugu: eragile horien aldetik transmititzen diren informazioa, irizpideak eta jarrerak: euskararen inguruan zein migratzaileen hizkuntzen inguruan. Hala ere, gure azterketa administrazioz kanpoko eragileen esparruan zedarritu dugu.

### **Justifikazioa**

Ikerlari honek, azken urte luzeotan, zeharkakoak diren bi gai hauen interakzio hartu ditu lan-ildotzat: hizkuntz normalizazioa eta kultural-aniztasunaren kudeaketa.

Atal honen sarrera gisa, azken urteotan iritsitako migratzaile baten elkarrizketa batean jasotako esaldia erabiliko dugu: “*guri ez digute horren inguruko informaziorik eman* [euskararen inguruko]”. Mota honetako testimonio bat baino gehiago jaso dugu azken urteotan. Horrek, nahitaez, nolabaiteko motibazioa sortzen digu fenomeno orokortua den ala ez aztertzeko.

Artikulu honen ardatzetako bat interes berezia duen ondorengo gaiarekin loturik dago. Aniztasun kulturalaren kudeaketarako eredu teoriko —eta politiko— nagusiak, gure iritziz, marko edo egoera orokor batean kokatzen ohi dira: estatu-nazioen markoan. Marko horren espazio geopolitikoan kultura eta hizkuntza nagusia —edo nagusitutakoa— dago eta horrekin sartzen dira interakzioan migratzaileen kultura eta hizkuntza berriak, berez, nahitaez, asimetrikoa den harreman batean. Hortaz, ikuspuntu teorikotik, abiapuntuzko zalantza bat dugu gure lan honen oinarrian. Aipatutako estatu-nazio horietan berezko aniztasun etnokultural endogenoa dagoenean eta, hain zuzen ere, aniztasun et-

nokultural endogeno hori egoera asimetricoan dagoenean, baliagarriak ote dira aniztasun kulturalaren kudeaketarako eredu orokorrak? Izan ere, migratzaileentzako harrera-espazio zehatz batean, bertako kultura eta hizkuntza gutxiagotutako egoeran daudenean, aniztasun etnokultural exogenoaren kudeaketa, nahitaez, interakzioan sartuko da berezko egoera horrekin eta, gutxienez, zalantzan jartzeko modukoa da eredu orokorraren baliagarritasuna. Hain zuzen ere, balizko hutsune teoriko horretan oinarritzen da lan-ildo honen interesa.

Arestian aipatu bezala, gure ikergaiak zeharkakoak diren bi gai interakzioan jartzen ditu: hizkuntz normalizazioa eta kultura-aniztasunaren kudeaketa. Zehazki, ikerketa lan honen kasuan, bi lerro horien inplementazio praktikoa aztertu dugu, migratzaileen harrera-praktikak ikeritzeko. Izan ere, eredu teoriko orokorrak aztertzea biziki interesgarria izanik ere, teoria praktikan zertan gauzatzen den ikustea bereziki interesgarria da.

Azken urteotan hainbat datu kuantitatibo bildu ditugu jatorri etnokulturalaren inguruan, agerian jartzeko fenomeno honen garrantzia. Horrelako datuak —soziodemografikoak zein demolinguistikoak— eskaini ditugu beste lanetan (Zapata 2011) eta hainbat datu gaurkotuagoak ere Gaindegiak eskaini izan ditu (Otxoa de Retana & Esnaola 2014).

Hala ere, aitortu beharrean gaude, aniztasunaren fenomeno nekez azter daitekeela bere osotasunean, identitate etnokulturala, jatorriaren inguruko datuetatik harago doalako

Lan honetan maiz agertuko dira aipamenak migratzaileen seme-alaben matrikulazioaren inguruan. Aurretik dezente jorratu dugu gai hau (Zapata 2015 & 2011) eta lan honen helburua ez da horretan sakontzea. Hala ere, lan honen testuinguruan kokatzeko, gai bat aipatzeak mereziko luke. Izan ere, euskaldunen dentsitatea handia duten zonaldetako eskola askotan jada ez dela eskaintzen A eredia, Haur Hezkuntza zikloan, baina horrek ez du esan nahi *arazoa* desagertu denik<sup>1</sup>.

## Ikerketaren irismena eta mugak

Atal teorikoan ikergaiaren oinarriak kokatzen saiatzen da, bereziki, ikerlariak ildo teoriko baten alde egiten duen hautua justifikatzeko. Hala ere, lana ez da sakonki sartzen eztabaida teorikoaren azterketan. Bestetik, aipatu den bezala, nolabaiteko hipotesi edo zalantza planteatzen da: eredu teorikoek balio ote duten gutxitutako kulturen, komunitateen edo estaturik gabeko nazioen testuinguruan. Alabaina, lan ho-

---

**2012/2013  
epealdian  
egindako  
landa-lan  
horretan 22  
elkarrizketa  
sakon egin ziren,  
hau da, garapen  
maila  
ertain/altuko  
ikerketa bat  
egiteko adineko  
materiala bildu  
da. Hala ere,  
ikerketa proiektu  
hartan  
aurreikusten  
ziren hiru  
elkarrizketa egin  
gabe gelditu  
ziren eta horrek,  
aztergaiaren  
osotasunari  
dagokionez,  
nolabaiteko  
muga ere  
adierazten du.**

**Honako helburu zehatzak zerrendatu ditugu:**

**1. Maila orokorrean, harrera zeregina aztertzea.**

**2. Euskararen trataeraren ikuspuntutik, administrazioz kanpoko harrera-eragileen jarduera eta horiek migratzaileei transmititzen dietena aztertzea.**

**3. Migratzaileen jatorrizko hizkuntzen trataeraren ikuspuntutik, administrazioz kanpoko harrera-eragileen jarduera eta horiek migratzaileei transmititzen dietena aztertzea.**

netan ez da saiakerarik egiten ustezko hutsune teoriko horren inguruko proposamen teorikorik aurkezteko. Gure lanaren funtsa ikerketa enpiriko batean kokatzen da eta garapen teorikoa mugatua da.

Atal enpirikoaren kasuan ere, maila ertaineko ikerketa garatu dugu.

Batetik, migratzaileen harrera aztertzerakoan, harrera-eragileen artean gure ikerketak soilik esparru bat hartu du ikerketa-eremu: administrazioz kanpoko harrera-eragileak. Horrek, nahitaez, bere mugak ekartzen ditu, migratzaileen harrera formalaren zati bat administrazio eragileen eskutik ematen delako. Baina objektutzat hartu dugun esparrua berezko ezaugarriak ditu eta ikergaia mugatzeak ere bere onurak baditu.

Bestetik, 2012/2013 epealdian egindako landa-lan horretan 22 elkarrizketa sakon egin ziren, hau da, garapen maila ertain/altuko ikerketa bat egiteko adineko materiala bildu zen. Hala ere, aurrerago azalduko den bezala, ikerketa proiektu hartan aurreikusten ziren hiru elkarrizketa egin gabe gelditu ziren eta horrek, aztergaiaren osotasunari dagokionez, nolabaiteko muga ere adierazten du.

## **2. IKERKETAREN XEDEA ETA METODOLOGIA**

### **Helburuak**

Ondorengo lerrootan ikerketaren helburu orokorra zein zehatzak azalduko ditugu.

Gure helburu orokorra, lanaren izenburuaren ildotik, honako hau dugu: migratzaileentzako harrera-eragileen zeregina aztertzea, hizkuntzen trataeraren ikuspuntutik.

Helburu orokorra garatzeko, honako helburu zehatzak zerrendatu ditugu:

1. Maila orokorrean, harrera zeregina aztertzea:

- harrera-eragile formalen eragina (pisua eta irismena),
- harreraren jasotzaileen profila,
- harrera-eragileen rola.

2. Euskararen trataeraren ikuspuntutik, administrazioz kanpoko harrera-eragileen jarduera eta horiek migratzaileei transmititzen dietena aztertzea:

- informazio zehatzik ematen dieten euskararen existentziaz eta egoera soziolinguistikoaz,

- harreraren euskarak nola edo halako presentziarik duen,
- migratzaileek euskara ikas dezaten –beraiek eta beraien seme/ala-bak...– informazioa eta/edo motibazioa transmititzen dieten,
- euskararen inguruko jarrera zehatzik transmititzen dieten.

3. Migratzaileen jatorrizko hizkuntzen trataeraren ikuspuntutik, administrazioz kanpoko harrera-eragileen jarduera eta horiek migratzaileei transmititzen dietena aztertzea:

- informaziorik biltzen ote duten beraien jatorrizko kulturaren eta hizkuntzen inguruan,
- harreraren beraien jatorrizko hizkuntzek nola edo halako presentziarik duten,
- migratzaileei beraien jatorrizko hizkuntzen inguruan aholkurik ematen dieten eta jatorrizko hizkuntzak mantentzeko laguntzarik ematen dieten,
- migratzaileei beraien jatorrizko hizkuntzen inguruko jarrera zehatzik transmititzen dieten.

## Arazo-galderak eta hipotesiak

Gure planteamendu metodologikoan logika kualitatiboa nagusia den heinean, hipotesiez baino arazo-galderez mintzatuko gara.

Abiapuntuan, hipotesi orokor batean oinarritzen da gure lana, ikerketaren justifikazioarekin loturik dagoena: migratzaileen harrera-eragileen aldetik —administrazioz kanpoko eragileak, kasu honetan— hizkuntzen trataeraren inguruko kontzientzia gutxi ez ote dagoen, gutxiagotutako bertako hizkuntzari dagokionez zein migratzaileen jatorrizko hizkuntzei dagokienez.

Ikerketaren helburu zehatzen haritik hainbat arazo-galera eta/edo hipotesi erator litezke, baina metodologia kualitatiboaren logikari eusteko, horrelakoak ez ditugu mahai gaineratuko hemen, emaitzak aurretik ez determinatzeko.

## Lanaren metodologia

Lan honen metodologia, oro har, ikerketa enpiriko baten garapenean zentratzen da. Oinarrizko marko teorikoa definiturik, lanaren elementu nagusia ikerketa kualitatibo sakon bat dugu.

Esan dugun bezala, lanaren helburua migratzaileen harrera aztertzea dugu, eragile sozialen esparruan mugaturik.

---

**Hipotesi orokor  
batean  
oinarritzen da  
gure lana:  
migratzaileen  
harrera-eragileen  
aldetik  
hizkuntzen  
trataeraren  
inguruko  
kontzientzia  
gutxi ez ote  
dagoen,  
gutxiagotutako  
bertako  
hizkuntzari  
dagokionez zein  
migratzaileen  
jatorrizko  
hizkuntzei  
dagokienez.**

**Eragileen izaera orokorraz gain, bigarren mailako aldagai batzuk ere aintzat hartzen saiatu gara: kokapen eta esparru geografikoa; eremu demolinguistikoa; euskararen estatus legala; jatorria; eragileen kasuan 'harrera programarik' duten eta abar.**

Horretarako, lehenengo urrats gisa, aztergai dugun subjektua identifikatu dugu. Hain zuzen ere, aztertu nahi genituen subjektuen artean hiru bereizi genituen.

Alde batetik, *harrera-eragile naturalak* izendatu ditugunak: berez harreraren tradizionalki lan egiten zutenak. Bestetik, bestelako eragileen esparruan, euskalgintzaren esparruko eragileak aztertu ditugu.

Diskurtsoen aniztasuna bermatzeko, aldagai batzuk erabili ditugu eragileen hautaketa egiteko. Abiapuntuko aldagaia eragileen izaera izanik, horretaz gain, bigarren mailako aldagai batzuk ere aintzat hartzen saiatu gara, hala nola: kokapen geografikoa; esparru geografikoa (hirigunea / herrigunea); eremu demolinguistikoa; euskararen estatus legala; jatorria (jatorri zehatz batekin loturiko eragileen kasuan); eragileen kasuan 'harrera programarik' duten; eragileen izaerarekin loturiko beste elementu bereizgarriak (generoaren ikuspuntuarekiko lotura eta/edo kultura-aniztasunaren bestelako adierazleak: *erlijioa* kultur adierazle moduan).

Eragile horien identifikazioa, sailkapena eta hautapena egiteko, aurretik diseinatu zen *Aniztasunaren Gida* liburua erabili dugu.

Abiapuntu gisa eragileen matrize bat sortu genuen eta, helburu gisa, 25 elkarrizketa egitea jarri genuen. Alabaina, elkarrizketak egiteko orduan oztopo batzuk izan aurkitu genituen eta, azkenik, Iparraldean aurreikusitako hiru elkarrizketa —hainbat arazorengatik— ez ziren egin 2012/2013ko fase hartan.

Esan beharrik ez dago horrek muga bat ekartzen diola lanari, ikerketaren irismenaren ikuspuntutik. Landa-lanaren esplotazioa egiteko orduan, aukera bezala, Iparraldean egindako elkarrizketa baztertzea eta markoa NFK eta EAE mailan mugatzea erabili dugu buruan. Alabaina, Iparraldean egindako elkarrizketak oso elementu interesgarriak ekartzen dituelakoan, hori integratzea interesgarria dela baloratu dugu. Zernahi den ere, diskurtsoen analisia egiteko orduan, hutsune hori dagoela mahai gainean jarri dugu eta, aniztasun etnokulturaleko eragileen kasuan, diskurtsoen analisia ezin dela zabaldu Iparraldearen eremura.

Ondoren azalduko den bezala —elkarrizketatuen identifikazio zerrendan— banaketa horretan aurretik aipaturiko aldagai ezberdinak erabili ziren, ahalik eta aniztasun handiena jasotzeko eragileen diskurtsoetan.

Diseinatu genuen eragileen matrizean, migrazio eta/edo kultura-aniztasunaren esparruan, bi eragile mota bereizi ditugu: ohiko asistentzia-

eragileak eta, bestetik, aniztasun etnokulturalaren inguruan antolatutako elkarteak.

Aniztasun etnokulturalaren esparruan, hiru eragile mota bereizi ditugu. Lehenik, *Migratzaile elkarteak* (Migratzaile Elk.), bere burua horrela definitzen dituzten eragileak, estatuz kanpoko jatorri etnokulturalekin loturikoak.

Bigarrenik, *Erljio elkarteak*, komunitate musulmanari lotua eta aniztasun etnokulturalaren rol bikoitzarekin. Batetik, orain arte exogenoa izan den adierazle erlijioso-kulturala. Bestetik, bere partaideei dagokionez, jatorri etnokultural ezberdinetako bilgune gisa.

Hirugarrenik, Espainiako beste herrialdeetako komunitatearen elkarte bateko eragile bat elkarrizketatu dugu (*Eskualdeetako Etxeak* edo ‘*Casas Regionales*’ direlakoak). Esplorazio fase batean jaso genuen informazioagatik —bi elkarrizketa informalak— argi ikusi genuen eragile hauek egun ez zutela harrera-eragile funtziorik betetzen. Horrexegatik ez zen gehiago jorratu eremu hori. Hala ere, interesgarria iruditu zitzaigun horietako bat elkarrizketatzea beste garai batean elkarte horiek harrera-eragile gisa jokatu zuten rola ezagutzeko eta, hein batean, 60./70. hamarkadetako migrazio-prozesua eta gaurkoa alderatzeko elementuak izateko. Horretarako, pertsona zehatz bat aukeratu genuen, Eskualdeetako Etxe baten eta herrialdeko Eskualdeetako Etxeen Federazioko lehendakaria izateaz gain, garai hartako errealitatea ezagutu zuelako.

Beste alde batetik, esan bezala, euskalgintzaren esparruko eragileak aztertu ditugu. Hor, bereziki, kultura-aniztasunaren trataeraren ikuspegiarekin lan egiten duten eragile batzuk aztertu ditugu, baita —kontraste gisa— horretan ari ez den besteren bat ere.

Eragile motaren arabera bi gidoi-mota erabili ziren 2012/2013 epealdiko elkarrizketak egiteko, eragile motari dagokion ñabardurak biltzeko. Hurbiltzeko estrategia ere ezberdina izan zen. Lehenengo harrera-eragile tradizionalen kasuan, ikergaiaren helburua aurretik agerian ez jartzen saiatu gara, diskurtsoa eta jarrera ez baldintzatzeko. Gaia orokortasunetik planteatu da, bukaeran euskararen gaia kokatzeko. Euskalgintzako eragileen kasuan, berriz, ikergaia agerian egon da lehenengo unetik.

Bestetik, eta oinarri gisa erabili den materialaren bilketatik denbora luzea pasatu ez bada ere, lanaren gaurkotasuna ebaluatzeari begira ari-keta analitiko bat egin da. Honen helburua ez da izan azterketa diakroniko bat egitea. Horrexegatik aurreko ikerketan elkarrizketatutako eragileekin kontraste arin bat egin da, galdetegi baten bidez, oinarrizko

---

***Diseinatu genuen eragileen matrizean, migrazio eta/edo kultura-aniztasunaren esparruan, bi eragile mota bereizi ditugu: ohiko asistentzia-eragileak eta, bestetik, aniztasun etnokulturalaren inguruan antolatutako elkarteak.***



**Bestetik, euskalgintzaren esparruko eragileak aztertu ditugu, bereziki, kultura-aniztasunaren trataeraren ikuspegiarekin lan egiten duten eragileak.**

datu batzuen eboluzioa aztertzeke (2012-2016 epealdiari dagokionez). Elkarrizketatutako 22 eragile haietatik soilik 8k erantzun diote galdete-giari, idatziz edo telefonozko elkarrizketen bidez.

Kontraste honetan jasotako erantzunek, kasu gehienetan, ez dute ia informazio berririk eman eta diskurtsoaren analisisian bertan txertatu dira, dagozkien aldaketak edo ñabardurak agertzeko.

Jasotako diskurtsoen inguruko interpretaziozko analisisa egiten saiatu gara eta, gure ustez, garrantzitsuenak ziren elementuak *Ondorioen* atalera eraman ditugu, horien irakurketan sakontzen saiatzeko.

Lan honetan *Ondorioak* atalean hainbat aipu testual erabiliko ditugu, interpretazioa laguntzeko. Horretarako, baina, eragileen anonimotasuna bermatzeko, laburdura batzuk erabiliko ditugu.

Kodea	Kokapen geografikoa	Eremua	Izaera	Euskaldunen dentsitatea	Euskaren estatusa	Jatorria	Besterik
[A1·A·Er]	Ara	Hiria	Asistentzia	Baxua	Ofiziala	-----	
[AE4·A·Er]	Ara	Hiria	Anizt	Baxua↑	Ofiziala	Amerika	
[AE8·A·Er]	Ara	Hiria	Anizt	Baxua↑	Ofiziala	ANITZA	Erlijioa
[AE5·A·Er]	Ara	Hiria	Anizt/Asistentzia	Baxua↑	Ofiziala	ANITZA	
[A7·N·Er]	Biz	Hiria	Asistentzia	Baxua	Ofiziala	-----	
[A3·B·Er]	Biz	Hiria	Asistentzia	Baxua	Ofiziala	-----	
[AE10·B·Er]	Biz	Hiria	Anizt	Baxua	Ofiziala	Amerika	
[AE2·B·Eu]	Biz	Herria	Anizt	Altua↑	Ofiziala	Afrika	
[E5·B·Eu]	Biz	Herria	Euskal	Altua	Ofiziala		
[AE7·G·Eu]	Gip	Herria	Anizt	Ertaina	Ofiziala	Amerika	Emakumea
[AE9·G·Eu]	Gip	Herria	Anizt	Ertaina	Ofiziala	Estatua	
[AE6·G·Eu]	Gip	Herria	Anizt	Ertaina	Ofiziala	Europa Eki.	
[A5·G·Er]	Gip	Herria	Anizt/Asistentzia	Baxua	Ofiziala	-----	
[A2·G·Eu]	Gip	Hiria	Asistentzia	Ertaina↓	Ofiziala	-----	
[E3·G·Eu]	Gip	Herria	Euskal	Altua	Ofiziala	-----	
[E1·G·Eu]	Gip	Herria	Euskal	Altua	Ofiziala	-----	
[E2·B·Eu]	Gip	Herria	Euskal	Altua	Ofiziala	-----	Emakumea
[AE1·N·Er]	Naf	Hiria	Anizt	Baxua↑	Ofiziala	Amerika	
[E4·N·Er]	Naf	Herria	Euskal	Ertaina↓	Mistoa		
[A6·N·Er]	Naf	Herrialdea	Asistentzia	Baxua	Mistoa	-----	
[AE3·N·Er]	Naf	Hiria	Anizt	Baxua	Mistoa	Europa Eki.	
[A4·I·Er]	Ipar	Hiria	Asistentzia	Baxua	Ez Ofiziala	-----	

Aldagaien azalpena honako hau litzateke:

- Eragile mota: E (euskalgintzakoa); AE (aniztasun etnokulturalakoa); A (asistentziakoa).
- Kokapen geografikoa: A (Araba); B (Bizkaia); G (Gipuzkoa); I (Iparraldea); N (Nafarroa).
- Eremu demolinguistikoa: Eu (Euskaldunen dentsitate handia); Er (Euskaldunen dentsitate ertaina edo txikia).

### 3. MARKO TEORIKOA

Aurretik aipatu den bezala, lan honen helburua ez dugu gaiaren inguruko marko teorikoan sakontzea, kasu honetan, lan enpirikoari lehentasuna eman diogulako. Hala ere, lan honek abiapuntuzko oinarri sendo batzuk baditu, aurretik metatutako ezagutza teorikoan oin harturik.

Azaldu dugun bezala, lan honen abiapuntuan bi prozesu uztartzen dira: gutxiagotutako hizkuntzen kudeaketa eta aniztasun etnokulturalaren kudeaketa. Prozesu horietako bakoitzak berezko garapen teorikoa behar du eta, koherentziaz, bakoitzaren inguruko oinarritzko ildo teorikoa marrazten saiatuko gara.

Aipatutako bi prozesu horiei, gainera, zeharkako izaera egozten zaie. Hortaz, zeharkakoak diren bi prozesu interakzioan ditugu aztergai.

Lan honetan zentralitatea eman ez badiogu ere, aurrekoarekin loturik zeharka agertzen zaigu hirugarren ildo teorikoa, identitatearekin loturikoa. Azaletik bada ere, horren aipamen arina ere egingen dugu.

### Hizkuntza politika ereduak

Soziolinguistikaren diziplina zabal eta anitzetik hizkuntza politiken definizioa izanen genuke oinarri.

Aitortu behar gure abiapuntua gutxiagotutako hizkuntzen bizindarberitze eta/edo normalizazio prozesuak daudela eta —euskal soziolinguistikan ohikoa den bezala— hor, gure oinarriak oso zabalak direla: Fishmanen hizkuntzak indarberitzeko —RLS— eredu, Sánchez Carriónen normalizazioa eta biziberritzearen inguruko teoriak, Aracil, Bastardas eta beste adituen proposamen teorikoak. Alabaina, atal honetan azpimarragarria iruditzen zaigu, eskuartean dugun gaian, soziolinguistikaren ikuspegia euskararen egoera aztertzeke erabili dugun bezala —gutxiagotasun linguistikoa testuinguru orokor gisa harturik— honek ere balio digula migrazio eta aniztasun etnokulturalarekin lotu-

---

**Lan honen abiapuntuan bi prozesu uztartzen dira: gutxiagotutako hizkuntzen kudeaketa eta aniztasun etnokulturalaren kudeaketa. Prozesu horietako bakoitzak berezko garapen teorikoa behar du.**

**Immigrazioa,  
kultura-  
aniztasunaren  
eta/edo  
elkarbizitza  
kudeaketaren  
inguruko  
abiapuntu  
teorikoa  
azkeneko  
hamarkada  
hauetan garatu  
den  
eztabaida-marko  
orokorraren  
barruan kokatzen  
da.**

riko hizkuntzak aztertzeko. Izan ere, hizkuntza horiek gurean gutxiengo (etno)linguistiko estatusa hartzen dute, baita bere prozesu soziolinguistikoek ere.

Kontzeptuen ikuspuntutik, lan honetan erabiltzen diren bi termino aurretik aipatzea merezi duelakoan gaude. Batetik —euskararen— *eremu geolinguistiko* terminoa, ikuspuntu zientifikotik, euskara bertakotzat hartzen diren eremu geografiko-administratiboak definitzeko erabilia.

Bestetik, kontzeptu zentral gisa, *gutxiagotutako hizkuntza* kontzeptua erabili dugu, honek *hizkuntza gutxitua* kontzeptuarekin halako ñabardura ekartzen duelako: minorizazio prozesua kanpotik eragindako prozesu moduan agerian jartzen du. Kasu honetan, gainera, exogenoak diren gutxiengo linguistikoaren egoerarekin bereizten laguntzen digu.

### **Aniztasunaren kudeaketa ereduak**

Bigarren ikerketa eta azterketa lerroa aniztasun etnokulturalari dagokio. Aniztasun hau, bere horretan, beste jatorri eta kultura ezberdineko kolektiboen existentziarekin lotzen da. Esparru horren baitan —lan honen helburuen ikuspuntutik— bereziki bi aztergai nagusi ikusi ditugu. Batetik, gai orokor bat dugu: aniztasun etnokulturalaren kudeaketaren ereduaren azterketa. Bestetik, aniztasun etnokulturalarekin loturiko komunitateen bilakaera linguistikoa, kulturala eta identitarioa.

Alabaina, ikuspegi teorikotik, lehenengo gaia jorratuko dugu hemen bereziki.

Immigrazioa, kultura-aniztasunaren eta/edo elkarbizitza kudeaketaren inguruko abiapuntu teorikoa azkeneko hamarkada hauetan garatu den eztabaida-marko orokorraren barruan kokatzen da, non erreferentziazko egileak hauek diren: Giovanni Sartori, Alain Touraine, Will Kymlicka, Charles Taylor eta, hein batean, Jürgen Habermas.

Eztabaida konplexua da eta ñabardura ugari dago ereduak planteatzeko orduan. Hala ere, sinplifikatze aldera, bestelako hiru ikuspegi bereiziko ditugu (Zapata & Albite 2012).

Alde batetik, Kymlickak (2006) eta Taylorrek (1994) kultura-aniztasuna *aitortzearen* inguruko politikekin identifikatzen dute, hau da, “estatu-nazio bati edo nazio, etnia eta migratzaile-talde ezberdinek estatu-nazio bati edo nazio, etnia eta migratzaile-talde ezberdinek egiten dizkieten eskaeraren zilegitasunari buruz aritzen diren politikekin” (Zapata & Albite 2012:1657). Beraien ustez, kudeaketan ematen den esku-hartze

politikoan ezin ukatu nazio-estatu modernoek neutraltasun etnokultural faltsukeria. Izan ere, ikuspegi liberal modernoak berdintasuna aniztasunaren gainetik jartzen du: norbanakoa kolektiboaren gainetik eta pribatua publikoaren gainetik. Hain zuzen ere, horren aurka, paradigma berri baten beharra aldarrikatzen dute, norbanakoarekin eta estatuarekin batera, alde komunitarioa eta etnonazionala aitortzeko.

Bigarren ikuspegian, kultura-aniztasunak ekartzen dituen ezberdintasunak eta arazoak bideratzeko, kultura-aniztasuna kudeatzeko kulturarteko espazioak sortzeko beharra aldarrikatzen dute (Touraine 1997). Aniztasuna behin-behinekotzat jotzen dute, diskriminazio positiboaren bidez, berdintasuna lortuko delakoan. Prozesu horretan estatu-nazioaren neutraltasun eza ere behin-behinekotzat jotzen da, ezberdintasuna gainditu arte. Honetan, baina, estatu guztien alde etnonazionala saihesten da eta, esaterako, ez da zehazten zein den *artekotasun* esparru horren kultura eta hizkuntza.

Azkenik, Sartori (2001) —eta azken garaiko Habermas— soilik pluralismoaz aritzen da. Oinarrian *eremu publiko* delakoan kultura-aniztasunari lekua ukatzen zaio: adierazpen kulturalak soilik eremu pribatuan onartzen direlakoan. Honen arabera planteatutako integrazio politikek, berez, asimilazio kulturala dute emaitza.

Esan bezala, aurreko hau guztia eztabaida marko orokorrarekin loturik dago. Alabaina, eredu horiek estatu-nazioen markoan definiturik daude eta, gure ustez, sakonki aztertu beharrekoa da ea noraino baliagarriak diren estaturik gabeko nazio edo komunitate etnokulturalen kasuan.

Horren aurrean, aurretik egindako lan batean (Zapata & Albite 2012: 1664-1665), gutxiagotutako komunitate etnokulturalen ikuspuntutik ereduak egokitzeko edo eredu propioa sortzeko beharra azpimarratzen genuen, baita horri begirako lerro batzuk proposatu ere, elkarrekiko aitortza eta kultura-aniztasunaren elkarbizitza oinarri. Bide horretan oinarrizko hiru ildo proposatzen ziren. Batetik, elkarren aitortzan aniztasuna izan behar duela abiapuntua. Bestetik, elkarrekiko aitortza dis-simetria izan behar duela abiapuntua. Azkenik, *elkarrekiko aitortzaren* estrategia ez dela unibertsala eta abstraktua.

Honetan datza, hain zuzen ere, gure kokapen teoriko pertsonala. Hain zuzen ere, aitortzaren estrategia oinarri, lan honetan euskararen egoera —gutxiagotutasun egoera abiapuntu eta testuinguru gisa harturik— aztertzearekin batera, kultura-aniztasun exogenoarekin loturiko komunitate etnokulturalen hizkuntza ere aztergaitzat hartzen dira.

---

**“Bigarren ikuspegian, kultura-aniztasuna kudeatzeko kulturarteko espazioak sortzeko beharra aldarrikatzen dute (Touraine 1997).**

**Alabaina, eredu horiek estatuz nazioen markoan definiturik daude eta, gure ustez, sakonki aztertu beharrekoa da ea noraino baliogarriak diren estaturik gabeko nazio edo komunitate etnokulturalen kasuan.**

Bukatzeko honetan ere gure ustez nolabaiteko argibide merezi duen kontzepturen bat azalduko dugu.

Azterketa honen ikergaia migratzaileen harrera izanik ere, migrazioaz aritu beharrean, maila orokorrean *aniztasun etnokultural* terminoa erabili dugu. Kultura eta jatorri ezberdinen errealitatea adierazteko balio digu kontzeptu honek. Kasu batzuetan aniztasun hau immigrazioa prozesu hurbilekin loturik egon daiteke. Beste kasutan, baina, zentzu zabalagoa hartzen du, zuzenki immigrazioarekin bere burua lotzen ez duten komunitate baten errealitatea azaltzeko balio duelako. Gurean tradizio handirik ez badu ere, termino honen alde egin dugu, gure ustez, gaiari berezko kokapena ematen diolako, gurea bezalako errealitatea aztertzeo ezinbestekoa dena.

Bestetik azalpen baten beharra dago *integrazio* kontzeptuaren erabileraz. Kontzeptu eztabaidagarria bada ere, kulturen ikuspegitik ez dugu bestelako adierarik aurkitu kontzeptu honen balioa hartzen ahal duena. Hala ere, bere erabileraren inguruko bi argibide eman behar ditugu. Batetik, lan honetan bere erabilera dimentsio kulturalen mugatzen dugula: bestelako dimentsioez —sozioekonomikoa, politikoa, e.a.— aritzeko, ‘integrazio’ adiera ‘inklusio’ kontzeptuarekin osatuko dugu. Bestetik, betiere, integrazio kontzeptua J. Berryk (1980) erabiltzen duen norabide biko terminoetan hartuko dugula. Kontzeptuak berak eta bere erabilerak lehen aipatutako gaia agerian jartzen digu: eredu orokorren balioa (edo ez), estaturik gabeko nazio edo komunitate etnokulturalen kasuan.

## **Identitate etnokulturalak**

Orain arte, bi ildo edo zutabe teoriko izan ditugu mintzagai: hizkuntzen kudeaketarako ereduak eta aniztasun etnokulturala kudeatzeko ereduak. Gure lanaren oinarrian ildo nagusiak izanik ere, hirugarren ildo teorikoa ere atzean agertzen zaigu: identitateen inguruko teoriak. Honetan, ikergaiaren ikuspuntutik, ondoko bi lerro zabaltzen zaizkigu. Batetik aniztasun etnokulturalarekin loturiko identitateen osaeraren eta eboluzioaren azterketa. Bestetik —heine batean lehenengo elementuarekin loturik— hizkuntza eta identitate etnokulturalaren arteko harremana. Azken honi dagokionez, estaturik gabeko nazio eta/edo komunitate etnokultural baten markoan kokaturik, interes berezia hartzen du honen azterketa: berezko hizkuntza gutxituagotuaren rola esparru komunean, beste talde etnokulturalen osagai integratzaile/inklusibo gisa.

Kultur eta nazio identitateen gaiari hasierako hurbilpena eginik, ezinbestean agertuko zaigu auzia, harreman estua dago nazionalismoaren

inguruan eremu akademikoan dagoen eztabaida ildoarekin. Azken batean, nolabaiteko gaurkotasuna duen jarreraren eztabaidari buruz ari gara, primordialisten edo esentzialisten —W. Connor, C. Geertz edo J. Zulaika— eta instrumentalisten edo modernisten —E. Gellner, K. Gerner eta E. Hobsbawm— arteko debateari buruz. Bi jarrera horien baitan, gainera, ikuspuntu ezberdinak ditugu.

Aurrekoarekin loturik daude eremu akademikoan agertzen diren bi eztabaidagai hauek: hizkuntzak subjektuaren sustantzializazioan duen rola eta subjektuaren eraikuntzan hizkuntzak duen rola sinbolismoaren produkzioan eta erreprodukzioan. Hor, esentzialismoan erori gabe, fenomenologia hermenautika eta neopragmatismoaren ildotik, hizkuntzak subjektuaren identitatean duen garrantzia azpimarratu nahi dugu.

#### 4. ONDORIOAK

**I** Artikuluaren tamaina mugatua izanik, ikerketaren atal enpirikoa —diskurtsoen analisia— ezin dugu hona ekarri, horretan bolumen handiko materiala jaso dugulako.

Hori horrela, lan honetan soilik ikerketaren ondorio batzuk ekarriko ditugu, emaitzaren hainbat elementu nabarmentzeko. Ariketa honetan garrantzitsuak diren elementu asko bidean gelditu dira, baina hala behar du izan ezinbestez.

Ondorioak ateratzeko, ahal dugun heinean, lotura eginen dugu ikerketa honen elementu guztien artean. Hala ere, lanaren diseinuagatik, fokua ikerketa kualitatiboaren emaitzetan jarriko dugu bereziki.

Hona ekarri ditugun elementuak ez dira, berez, lanaren laburpen bat. Gai honen inguruan nolabait jakintzat ematen ohi diren gauza asko aipatu gabe gelditu dira. Hain zuzen ere, azpimarratuko ditugu: batetik, hedatuak diren uste horien inguruan agertutako ñabardurak edo; bestetik, honen inguruan egon daitezkeen elementu berriak edo oso hedatuak ez direnak.

Azken puntuan, halaber, halako ariketa eginen dugu emaitzak hasierako arazo galderekin —hipotesiekin— alderatzeko.

Alabaina, ondorioak mahai gainean jartzeko orduan, nahitaez, gure ikerketaren irismenaren inguruko argipen bat egin behar dugu.

Lehen aipatu bezala, 2012/2013 epealdian egindako landa-lan hartan ez zen lortu Iparraldeko jatorri etnokulturaleko eragileei elkarrizketa

---

***Aintzat hartu behar da harrera tradizionala – asistentziarekin loturikoa– jasotzen duten eskatzaileen egoera sozioekonomiko larria eta faktore sozioekonomikoaren garrantzia. Horrek baldintzatzen du gaiaren inguruko pertzepzioa, baita muga psikologiko batzuk sortu ere.***

**Harrera-  
eskatzaileen  
lehentasunak  
lehen mailakoak  
dira giza  
beharren  
ikuspuntutik eta  
horien artean ez  
da sartzen  
euskara.**

egitea eta eragile horien errealitatea ez zen jaso. Hortaz, ondoren aterako ditugun ondorio hauek, jatorri etnokulturalen inguruan antolatutako eragileei dagokionez, ez dira zertan baliogarriak izan behar Iparraldearen kasuan, soilik NFK eta EAEko eragileen errealitatea jaso dugulako.

### **Harrera-eskatzaileak eta testuingurua**

Diskurtsoen bidez harrera-eskatzaileen egoera eta profilak aztertu ditugu, baita hizkuntzekin loturiko jarrera eta portaerak ere.

Testuinguruari dagokionez, lehenik eta behin aintzat hartu behar da harrera tradizionala —asistentziarekin loturikoa— jasotzen duten eskatzaileen egoera sozioekonomiko larria eta faktore sozioekonomikoen garrantzia. Horrek baldintzatzen du gaiaren inguruko pertzepzioa, baita muga psikologiko batzuk sortu ere.

“La cultura para esa gente (...) es un lujo.” [A4-I-Er].

Harrera-eskatzaileez ari garenean, azpimarratu beharrekoa da, lan honetan zuzenki ez ditugula jaso harrera-eskatzaileen diskurtsoak. Oinarri gisa hartuko dugu eragileek egotzitakoa; hortaz, kanpotik hautemandako jarreraz ari gara, ez, subjektuak berak zuzenki adierazitakoaz. Egia da eragile horien preskriptoreak berez migratzaileak direla; batzuetan, nolabaiteko bikoizketa sortzen da diskurtsoan, besteen bizipenak —harrera-eskatzaileenak— eta norberarenak nahasten direlako. Hala ere, bozeramaileak elkarte baten izenean mintzo diren heinean, beraien diskurtsoa instituzionalizatua, *kristalizatua* dago, elkarte gisa eraikia. Hau da, berak diskurtsoa —migratzaile gisa— produzitu eta —elkarteko bozeramaile gisa— erreproduzitu egiten du batera.

Euskararen egoeraren ikuspuntutik nabarmendu behar da aldagairen baten pisua, eremu soziolinguistikoa, bereziki. Euskarak bizi duen gutxiagotasun egoeran, tokian tokiko euskararen bizindar etnolinguistikoak jarrerak eta joerak markatzen ditu arlo nagusietan. Izan ere, bizindar etnolinguistikoa elkarreraginean dauden hiru faktore hauetan oinarritzen da: egoera demolinguistikoa, estatusa eta babes instituzionala. Tokian tokiko errealitatea ezberdina bada ere —estatus ofizialik ez Iparraldean; babes instituzional handiagoa EAEn; egoera demolinguistikoa ahulagoa hiriguneetan— hiru faktoreen balantzaren ondorioak nabariak dira. Hain zuzen ere, harrera-eskatzaileen zein harrera-eragileen jarrerak eta portaerak aztertzen direnean, jarrera eta portaera zehatz batzuk eremu soziolinguistikoa zehatz batzuekin loturik agertzen direlako (Iparraldeko hiriguneak, Nafarroako Iruñerria eta Arabako Gasteiz

aldea, bereziki). Hor agertu dira, esaterako, eskatzaileei egotzitako jarrera eta portaera pasiboenak: euskararen inguruko balorazioetan, helduak zein haurrak euskalduntzeko jokabideetan.

Oro har esan daiteke harrera-eskatzaileei ez dietela egotzi euskararen kontrako iritzi orokorrik. Hala ere, aipatutako eremu soziolinguistiko horietan euskararen inguruko distantzia handiagoa agertu da kasu batzuetan.

“Yo tengo dos críos, siete sobrinos y si les pregunto del euskara, no, no, no, nada del euskara, castellano.” [AE1·N·Er].

Euskararen inguruan ikuspegi pragmatikoa nagusia da harrera-eskatzaileen aldetik, kasu gehienetan atxikimendu afektiborik ez dagoelarik. Harrera-eskatzaileen lehentasunak lehen mailakoak dira giza beharren ikuspuntutik eta horien artean ez da sartzen euskara.

Bestetik, beraien sare informaletan soilik beraien jatorrikoak egoten dira eta euskara hurbiltzeko zubirik ez dago.

Hona iritsi aurretik maiz ez dute ezagutzen euskararen existentzia. Egunero bizimoduan euskara hor dagoela ikusten dute, baina oro har ez dute ongi ezagutzen eta ez dute ulertzen hemengo egoera soziolinguistikoa ren nondik norakoak. Baina ondorio ximple bezain gordina ateratzen dute guztiek: hemen bizitzeko ez dela beharrezkoa euskara jakitea.

“No están interesadas del euskera, no. (...) ¿A qué me sirve? Si puedo dirigirme a los demás en castellano, a qué tengo que matarme mi cabeza por el euskera.” [AE6·G·Eu].

“Es lo que te preguntan, aquí exigen el euskara? No es como en Cataluña que para darte alguna documentación, hacer algún trámite de extranjería te exigen hacer un curso de catalán.” [AE1·N·Er].

Nahia izanik ere, helduen kasuan, nekez dira bateragarriak euskara ikastea eta migratzaileen bizi-baldintzak. Oso gutxi dira euskara ikasi edo ikasiko duten helduak, bereziki migrazio-proiektuaren lehenengo faseetan. Horretan ere eredu dugu 60./70. hamarkadetako migrazioaren errealitatea, haietako oso gutxik ikasi baitzuten euskara (Zapata, 2012: 126).

Hala ere, euskara ikasteko aukeren inguruan informazio falta sumatzen da kasu batzuetan eta horren inguruko estereotipo negatibo batzuek pisu handia dute (prezioa, zailtasuna, e.a.).

Helduen kasuari dagokionez, kasu batzuetan interpelazio zuzena egiten

---

**Hona iritsi aurretik maiz ez dute ezagutzen euskararen existentzia. Egunero bizimoduan euskara hor dagoela ikusten dute, baina oro har ez dute ongi ezagutzen eta ez dute ulertzen hemengo egoera soziolinguistikoa ren nondik norakoak. Baina ondorio ximple bezain gordina ateratzen dute guztiek: hemen bizitzeko ez dela beharrezkoa euskara jakitea.**



**Helduen kasuari dagokionez, kasu batzuetan interpelazio zuzena egiten zaio administrazioari, baliabide gehiago jartzeko (doakotasuna, erraztasunak, e.a.). Haurren eskolatzearen kasuan, haurrak Haur Hezkuntzan normalki hasten direnean, hizkuntza-eredu ezberdinak eskaintzen diren zonaldetan, guraso ugari oraindik A eredia aukeratzen dute, gutxienez bizindar etnolinguistikoa baxua den eremuetan.**

zaio administrazioari, baliabide gehiago jartzeko (doakotasuna, erraztasunak, e.a.).

Haurren eskolatzearen kasuan, haurrak Haur Hezkuntzan normalki hasten direnean, hizkuntza-eredu ezberdinak eskaintzen diren zonaldetan, guraso ugari oraindik A eredia aukeratzen dute, gutxienez bizindar etnolinguistikoa baxua den eremuetan. Ingurune horietan A eredia joateko halako joera instituzionalizaturik dago eta horri ekiteko estrategia falta sumatzen da.

“Yo creo que más del 95% de los búlgaros que yo conozco eligen el inglés y castellano” [AE3-N-Er].

“Casi todos los paraguayos, nuestros descendientes están en la clase A, el de castellano.” [AE4-A-Er].

Eskolatzeko berantiarren kasuan, Hezkuntza sistemak ez du biderik eskaintzen koskorturik etortzen diren haur eta gazte horiek euskarara hurbiltzeko. Eta hori kuestionatua izan da eragile batzuen aldetik.

“Si están todos los vascos con 40, 50 años aprendiendo euskara y un niño de 12 años ¿por qué le privamos de aprender euskara?” [AE5-A-Er].

Jatorrizko estatuan gutxiagotuak diren komunitate etnokulturalen partaideak dira batzuk. Horrek nolabaiteko hurbiltasuna eta euskararekiko sentsibilitatea ekar lezake edo horrelako interpretazioak egiten dira batzuetan. Baina, praktikan, ez da zertan horrela izan behar. Batzuetan ez dago kontzientziarik jatorrizko egoerarekin. Beste kasuetan, gainera, jatorrian bere komunitatea menpeko gisa ikusten duenarentzat, hona aurrerabide bila etorri delarik, agian hemen ez du nahi menpeko gisa agertzen den komunitatearekin identifikatu nahi; kontrakoa, arrakastatsua den hizkuntzarekin identifikatzea nahiago du.

“Batzuk beren jatorrizko hizkuntza, hizkuntza ofiziala ez dena, Orduan horrekin askotan dago lotuta (...) iragana pobrea edo. (...) Orduan progreso eta aurrerapen ekonomikoaren hizkuntza da hizkuntza ofiziala” [E3-G-Eu].

Jatorri batzuetako komunitateek bizindar etnolinguistikoa handia dute gurean, horietako batzuk jatorrizko estatuetan gutxiagotutako komunitate etnokulturalak: Ekuadorreko kitxuak eta Paraguyako guaraniak bezala.

Alabaina, jatorrizko kultura eta hizkuntzaren transmisioa eta sozializazioa ahaltzen doa, denbora pasa ahala: seme-alabek ez dute gurasoen hizkuntza ongi ikasten edo ez dute erabiltzen. Euskararekin gertatzen

den bezala, gaztelaniaren nagusitasunak beste hizkuntza hauei eragiten die, baina sakonkiago aztertu behar dira prozesu horiek eta eragiten duten faktoreak.

Kultura-aniztasunaren eta euskararen normalizazioaren kudeaketa zeharkako jarduera gisa planteatzen dira, baina praktikan ikusi dugu ez direla horrela hartzen. Baliteke bi ildo edo helburuen artean ere halako asimetria edo hierarkia gertatzea, hau da, euskararen normalizazioak hedapen sozial handiago duela kultura-aniztasuna edo migratzaileen integrazioa baino. Hein batean, hori logikoa izan daiteke, euskararen normalizazioak urteetako garapena izan duelako eta gatazka soziokulturala gatazka soziopolitiko batekin lotzen delako.

Hain zuzen ere, beste ondorio bat aurrekoarekin loturik dago, euskararen normalizazioa maiz hizkuntza-gatazkatik harago doan gatazka giro batean agertzen dela. Azken buruan, harrera-eskatzaileak hori jasotzen dute eta eragiten die. Etorri berriak oso iragazkorak dira —hizkuntza gatazkaren logikan— euskararen kontra erreproduzitzen diren diskurtso eta estereotipoekin. Are gehiago, gehienek euskaldunen komunitatearekin harreman horizontalik ez duten heinean, norabide bakarreko iriziek elikatzen dira.

Aurrekoaren ildotik, euskaldunen dentsitate demolinguistikoa handia dagoen tokietan (*arnasguneetan*), kultura-aniztasunaren kudeaketak hausnarketa eta kontraesanak ekarri ditu, beste jatorrietako herritar berrien etorrerak elebakartasuna kolokan jartzen duelako. Beste gunetan euskara ez dakitenez —bere jatorria edozein izanik ere— ez dute beharrik ikusten euskara ikasteko, *euskarara integratzeko*, eta euskara nagusia den gunetan, euskararen elebakartasuna aldarrikatzen dute, desorekatutako egoera orekatzeko —diskriminazio positiboaren ariketa bat egiten— euskara ez dakitenei euskara ikasteko beharra sentiarazten.

## **Harreragileen jarduera**

Harreraz ari garela, harrera praktika eta ibilbide ezberdinak agertu zaizkigu. Kasu batzuetan, harrera integralaren garrantzia azpimarratu dute eragileek, bere baitan aspektu ezberdinak harturik: administratibo-legala, sozio-laborala, psikosoziala-emozionala, soziokulturala. Hala ere, inork ez du horrelakorik eskaintzeko gaitasunik.

Funtzionamenduari dagokionez, ezberdintasun handia dago aztergai izan ditugun eragileen artean. Antzekotasun gehiago daude asistentzia eremuko eragileen artean, baina aniztasun etnokulturaleko eragileen ar-

---

**Jatorrizko kultura eta hizkuntzaren transmisioa eta sozializazioa ahultzen doa: seme-alabek ez dute gurasoen hizkuntza ongi ikasten edo ez dute erabiltzen. Euskarari gertatzen zaion bezala, gaztelaniaren nagusitasunak beste hizkuntza hauei eragiten die.**

**Aipagarria iruditzen zaigu euskalgintzako eragile baten praktika eta diskurtsoa, berritzaileak izan daitezkeen elementu zenbaitzuk agertzen direlako: parekoa aintzat hartzea, harreman pertsonal eta afektiboen bidez; herritarrak harreran inplikatzeko eta sarete soziala lantzea; informazioa eta ezagutza bi norabideetakoak izatea; kultura-aniztasuna ezagutaraztea eta balioan jartzea herritar guztien artean, arreta berezia jarritzat jotzen gutxiagotutakoak diren kulturei; hiritartasun barne-biltzailea.**

tean ezberdintasun nabariak daude. Horretan aintzat hartu behar da egiturari, antolaketari eta lidergo estiloari dagokienez. Batzuetan, hain zuzen ere, lidergo-gatazkak sortzen dira elkarte barruan edo beste elkarrekin.

Eraginkortasuna helburu, elkarte guztien irismen kuantitatiboari zein kuantitatiboari erreparatu behar zaio, batzuek halako izaera estrategikoa baitute.

Bestetik, harrera-eskatzaileak 'polikontsumitzaileak' dira eta asko zirkuitu batean mugitzen dira. Honek mahai gainean jartzen duen aukera hau da: kate-begi guztietan eragin gabe, kate-begi batzuetan eragitea aski izan daitekeela helburu batzuk lortzeko.

Harrera tradizionala lehen mailako beharren arabera ematen den heinean, zaila da horretan ikuspegi soziokulturala txertatzea. Horren kontrako diskurtso bat instituzionalizaturik dago: ez da momentua horretarako.

Eragileen diskurtsoetan gutxi izan dira kultura-aniztasuna kudeatzeko eredu inguruko erreferentziak eta gehiago erreparatu diegu praktikei. Alabaina, aipagarria iruditzen zaigu euskalgintzako eragile baten praktika eta diskurtsoa, berritzaileak izan daitezkeen elementu zenbaitzuk agertzen direlako: parekoa aintzat hartzea, harreman pertsonal eta afektiboen bidez; herritarrak harreran inplikatzeko eta sarete soziala lantzea; informazioa eta ezagutza bi norabideetakoak izatea; kultura-aniztasuna ezagutaraztea eta balioan jartzea herritar guztien artean, arreta berezia jarritzat jotzen gutxiagotutakoak diren kulturei; hiritartasun barne-biltzailea. Eta hori guztia, modu praktikokoan euskara zentroan jarritzat jotzen eta herrian euskarak duen garrantzia sentiaraziz.

Aipatutako *hiritartasun barne-biltzaile* delako horrekin loturik dago, hain zuzen ere, objektu-subjektuaren definizioa. Alde horretatik, nabarmentzeko iruditu zaigun kontu bat aipatu nahi dugu. Lehen aipatu dugu harrera linguistiko lanetan ari den euskalgintzako eragile batek kontzeptu batzuk gainditzeko ahalegina (integrazioa, etorkina, e.a.).

### **Harreragileak eta aniztasun etnolinguistikoaren kudeaketa**

Oro har esan daiteke harrera-eskatzaileen jatorrizko hizkuntzak oso presentzia gutxi duela harreran. Maila sinbolikoaren garrantziaz ere, oro har, ez da kontzientziarik ikusten. Salbuespenik nabarmenena harrerarekin loturiko programak dituzten euskalgintzako eragileak dira, horietan elkarren arteko aitortzaren izpiritua agerian dagoelarik.

Migratzaile elkarte batzuetan jatorrizko beraien hizkuntzen presentzia naturala da. Alabaina, jatorrian gutxiagotutako hizkuntzen kasuan, mi-

gratzaile-elkartetan ere ez dago beti bermaturik beraien presentzia. Hain zuzen ere, migratzaileen elkarteetan jatorrizko estatu-nazioen berezko kultura-aniztasunaren fenomeno agertzen da. Izan ere, aniztasun etnokulturalaren inguruan antolatutako eragile askoren kasuan, jatorrizko estatuak plurikulturalak eta/edo plurinazionalak dira. Batzuetan asimetria etnokulturala erreproduzitzen ahal da elkarteetan, hau da, jatorrizko estatuaren hierarkia etnokulturala, elkartearen barruko botere-hierarkian erreproduzitzen ahal dela.

Lehen aipatu bezala, eragile gisa antolaturiko komunitate etnokultural batzuek indar handia jartzen dute jatorrizko kulturaren erreprodukzioan, kasu batzuetan hizkuntzarekin loturik. Horietako batzuk jatorrizko herrialdeekin lotura handia dute eta *diaspora* forma hartzen dute.

Jatorrizko hizkuntzaren familia transmisioaren inguruan eragileek adierazten duten jarreraren inguruan, nabarmena da ez dagoela protokolorik ezta —oro har— irizpide formalik ere, baina maiz agertu da jatorrizko hizkuntzak mantentzearen aldeko iritzia/aholkua ematen zaiela.

Eragileren batek halako jarrera neutroa ere adierazi du honen inguruan, baina ez dira agerian jarri arrazoiak eta hipotesi ezberdinetarako bidea ematen du: integrazio-inklusioren helburuei begira oztopo bat izan daitekeela eta/edo —besterik gabe— asimilazioa ontzat ematen dela.

Euskalgintzatik kanpo, oro har, harrera-programen testuinguruan ez dago kontzientziarik aitortza edo errekonozimendu praktiken balioaz. Hain zuzen ere, hori da euskalgintzako hainbat eragileren oinarria. Beraien praktikan sentsibilitate handia dago jatorrizko hizkuntzekin eta zubi gisa erabiltzen dute.

## **Harreragileak eta euskararen normalizazioa**

Euskararen presentzia harreran minimoa da euskalgintzatik kanpo. Jatorrizko hizkuntzen kasuan bezala, oro har, kontzientzia gutxi dago euskararen erabilera sinbolikoaren balioaz.

Eragile batzuen kasuan, agerikoa da bere baitan desadostasunak daudela edo, gutxienez, ez dagoela adosturik euskararen gaia nola joratu.

Euskararen inguruan eragileek transmititzen duten informazioari eta jarrerari dagokienez, denetarik aurkitu dugu. Batzuen aldetik —euskalgintzatik kanpo ere— oso jarrera proaktiboak. Beste batzuen aldetik jarrera pasiboak edo neutroak. Alabaina, kasu bakanen batean ere, neu-

---

***Euskalgintzatik kanpo, oro har, harrera-programen testuinguruan ez dago kontzientziarik aitortza edo errekonozimendu praktiken balioaz.***

**Euskararen inguruan jarrera ezberdinak aurkitu ditugu eragileen artean. Batzuen aldetik —euskalgintzatik kanpo ere— oso jarrera proaktiboak. Beste batzuen aldetik jarrera pasiboak edo neutroak. Kasu bakanen batean ere, neutraltasuna adierazi arren, hain neutroak ez diren portaerak agertzen dira.**

traltasuna adierazi arren, hain neutroak ez diren portaerak agertzen dira, haurrak A eredura bideratzeko<sup>2</sup>.

“Tú prácticamente lo dejas a elección (...). El sólo hecho de estar acá ya se les complica (...) entonces para no complicarles, les digo, comienza con esto [A eredua], si al crío le va gustando lo vas cambiando.” [AE1·N·Er].

Horretan guztian, nabarmena izan da euskararen bizindarraren aldagaiaren pisua, aipatutako azken kasu horretan ere, bestelako elementuetan, eragile berak euskararen aldeko jokoerak agertu izan dituelako.

Euskalgintzatik kanpo eragile gehienek ez dute euskararen sustapenaren inguruko neurri edo programarik. Aurkitu dugun programa bakarra —programaren diseinua sendoa izan arren— bertan behera gelditu zen, urgentziazko harrera emateko beharrarekin gainezka.

Euskararen normalizazioa bezalako gai batekin eragiteko, harrera-proiektu iraunkorra behar dela uste da, epe ertain/luzekoa. Alabaina, batzuek uste dute prozesu bat dela eta tantaka-tantaka botaz gero, azkenean zerbait gelditzen dela.

Horrekin loturik egin daiteke eragileen arteko osagarritasunaren ideia, eragileen arteko nolabaiteko rol banaketa egon daitekeelako gaiak jorratzeko. Kasuren batean horren eredu praktikoa ikusi dugu. Esaterako, haurren matrikulazioaren inguruan, Araban *Denon Eskolak* hartutako rola erreferentziazko eragile gisa, hainbat eragileen onespenearekin. Beste kasu batean, hau, proposamen-eskaera moduan agertu zaigu, asistentziazko erakunde horren parean beste zerbait antolatu behar dela, arlo hori jorratzeko.

“Le reste (...) dit que ce n'est pas pour nous, qu'on n'a pas le temps. Il faudrait qu'il y est quelque chose à côté, ici on n'a rien. Ensuite il faut l'organiser, parce qu'il faut trouver des gens qui se donnent, qui prennent le temps, qui vont vers les personnes... Moi, mon avis il faudra une autre structure.” [A4·I·Er].

Izan ere, ‘urgentziazko harrera lanetan’ aritzen diren eragile horietako askoren aldetik euskararekiko sentsibilitate handia aurkitu dugu, baina ezintasunez bizi dute hori, ez baitiote horri lekurik ikusten beraien jardueran.

Aurrekoarekin lot daiteke batzuetan entzuten den ideia edo estereotipo bat: eragile batzuei egozten zaien euskararen kontrako jarrera. Kritika horien jomuga diren hainbat eragileren aldetik euskararen aldeko jarrera

argia antzeman dugu. Beste kasuetan jarrera pasiboagoak ikusi arren, ez da agertu euskararen kontrako jarrerarik.

Inork ez du adierazpenik egin euskararen sustapen orokorraren kontra, baina kasuren batean kritikatu izan da euskara ikastea nolabait beharrezkotzat jotzea (laguntza sozialekin loturik edo).

Eragile sozialen artean preskriptore lan egiten duten pertsonen artean, batzuetan, halako hutsunea sumatu dugu formazio/informazioaren aldetik. Izan ere preskriptore zenbaitzuk euskararen inguruan informazioa transmititzen dute eta horietako batzuen artean ageri gelditu da gaiaren inguruko ezagutza falta.

Edozein modutan ere, informazio ematearen inguruan, pedagogiaren beharra azpimarratzen da. Abiapuntua hemengo errealitatea ulertzeko zailtasunekin loturik egon behar da, 'guretzat' agerikoak diren gauza batzuk ulertzea ez baita hain erraza.

Bukatzeko, berriz ere azpimarratu behar da euskalgintzako eragileek eremu honetan hartutako ildoak, euskararen erabilera komunikatiboa zein sinbolikoa jorratzeko. Aztertutako euskalgintzako eragileen artean praktika ezberdinak izanik ere, harrera programak dituztenen kasu guztietan euskararen zentraltasuna lehenesten da. Kasu batean, egindako hausnarketaren ondorioz, lan-munduarekin lotutako formazioari lehenetasuna eman diote, motibazio integratzailetik instrumentalerako bidea eginez.

Motibazioak aipatu ditugula, bereziki azpimarragarria iruditzen zaigu eragile batzuen kasuan programen estrategia sozializazioan datzala. Hain zuzen ere, sozializazio eremu bat eskaintzen zaiela etorri berriei hizkuntza komunitatearekin harremanetan sartzeko. Horrek ekartzen duen logika interesgarria da, sozializazio praktikak —ez sozializazio nahiak— hizkuntzara hurbiltzen dituela.

### **Abiapuntuzko arazo-galdera (hipotesia)**

Bukatzeko, ondorioak nolabait gure lanaren abiapuntuzko azaro-galderarekin harremanetan jartzen saiatuko gara.

Abiapuntu gisa mahai gainean jartzen genuen ea harrera-eragileen aldetik —administrazioz kanpoko eragileak, kasu honetan— hizkuntzen trataeraren inguruko kontzientzia gutxi ez ote dagoen.

jasotako informazioaren arabera, hasierako tesia, oro har harturik, hein handi batean berresten da.

---

***Azpimarratu behar da euskalgintzako eragileek eremu honetan hartutako ildoak, euskararen erabilera komunikatiboa zein sinbolikoa jorratzeko. Aztertutako euskalgintzako eragileen artean praktika ezberdinak izanik ere, harrera programak dituztenen kasu guztietan euskararen zentraltasuna lehenesten da.***

**Harrera-  
eskatzaileen  
jatorrizko  
hizkuntzen  
inguruan,  
salbuespenak  
salbuespen, kasu  
gehienetan oso  
kontzientzia  
gutxi dago. Beste  
ertzean kokatzen  
dira harrera  
programak  
dituzten  
euskalgintzako  
eragileak,  
elkarren  
aitortzaren  
filosofia bere  
eginez.**

Harrera-eskatzaileen jatorrizko hizkuntzen inguruan, albuespenak salbuespen, kasu gehienetan oso kontzientzia gutxi dago. Batzuetan horri ez zaio erreparatzen, ez da aintzat hartzen errealitate hori, bereziki gutxitutako komunitate etnokulturaleko partaideak direnean. Berriz, beste ertzean kokatzen dira harrera programak dituzten euskalgintzako eragileak, elkarren aitortzaren filosofia bere eginez.

Gutxiagotutako bertako hizkuntzari dagokionez, euskararen kasuan, maiz halako kontzientzia edo sentsibilitatea ikusten da. Euskararen inguruan adierazten den jarrera orokorra positiboa da. Jokabideari dagokionez, berriz, euskalgintza eremuko eragileetatik kanpo, oro har ez da argi ikusten nola txertatu euskararen gaia harreran.

Lan hau bukatzeko, azken ekarpen gisa, interesgarria iruditu zaigu eragileen aldetik agertutako bi ideia gogora ekartzea eta horiek uztartzen saiatzea: harrera integralaren beharra eta eragileen arteko osagarritasunaren aukera.

Izan ere, integraltasunaren beharra abiapuntutzat harturik, argi da eragile sozialek nekez eskaintzen ahal dutela beharrezko integraltasun osoa. Ikusi dugun bezala, asistentziazko eragile egituratu eta sendo baten kasuan, euskararen normalizazioa jorratzeko programak ezarri direnean, ezin izan diotela eutsi, lehentasunekin itoak. Beharbada elementu batzuk jorra daitezke harrera-lana egiten duten eragileekin —formazioa, informazioa, e.a.— helburu xume batzuen inguruan. Baina, ardura gehiegi beraiangan jartzea ziur aski ez da eraginkorra ezta bidezkoa ere.

Hortik, beraz, eragileen arteko osagarritasuna jorratzeko aukera, eragile batzuek euskaren preskriptore-rola harturik. ●

## OHARRAK

1. Ikerketa honen gaia ez dugu hori aztertzea, baina zertaz ari garen jakiteko, datu gutxi batzuk eskainiko ditugu, arazo horren jarraipenaz ohartarazteko. EAEn, 2015/2016 ikasturtean, oraindik 35 ikastetxetan eskaini da A eredu Haur Hezkuntza (HH) eta 55 ikastetxetan Lehen Hezkuntza (LH). Gipuzkoan Haur Hezkuntza A eredu eskaintzen dute 6 ikastetxe daude —Donostia eta Irunen— eta elitista dira guztiak. Araban, ikastetxe gehienak Gasteizen kokatzen dira eta gehienak publikoak dira. Bizkaian Bilboko itsasadarrean kokaturik daude: Ezkerraldean —publikoak eta hitzartutakoak parean— eta Eskuinaldean, berriz, gehiago pribatuak, baina publikoak ere badira. Nafarroan, A ereduaren eskaintza nagusia izanik ere, azpimarratzeko da ingurune euskaldunetan dagoen eskaintza HH eta LH mailetan: Doneztebe, Elizondo, eta erdaldunagoak diren Sakanako guneean (Altsasu, Olazti, Uharte Arakil eta Irurtzun).

2. Azaldu behar Nafarroan A ereduaren beharrean G ereduaren matrikulatzeko aukera ere badagoela. A ereduaren euskara irakasgai gisa agertzen den bitartean G ereduaren ez.

## BIBLIOGRAFIA

- Berry, J. W. (1980). "Acculturation as varieties of varieties of adaptations", in Padilla, A. (Ed.). *Acculturation theory, models and some new findings*. Colorado: Westview press.
- Connor, W. (1998). *Etnonacionalismo*, Trama, Madrid.
- Fishman, J. (1988). *Sociología del lenguaje*, Cátedra, Madrid.
- Geertz, C. (2000). *La interpretación de las culturas*, 10ª reimp edn, Gedisa, Barcelona.
- Gellner, E. (1988). *Naciones y nacionalismo*, Alianza, Madrid.
- Kymlicka, W. (2006). *Ciudadanía multicultural: una teoría liberal de los derechos de las minorías*, 6ª reimp edn, Paidós, Barcelona.
- Otxoa de Retana, A. & Esnaola, I. 2014, "Immigrazioa Euskal Herrian, hurbilketa kuantitatibo eta lurraldekoa" in *EAEko immigrazioari buruzko 2013ko urtekaria*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- Sánchez Carrión, J.M. (1999). *Márgenes de encuentro, Bilbao y el euskera: aplicación sociolingüística de la territorialidad*, Ayuntamiento de Bilbao.
- Sánchez Carrión, J.M. (1987). *Un Futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*, Txepetx, San Sebastián.
- Sánchez Carrión, J.M. (1981). *El espacio bilingüe : (aspectos etnolingüísticos del bilingüismo y teoría lingüística de los espacios)*, Eusko Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos.
- Sartori, G. (2001). *La sociedad multiétnica. Pluralismo, multiculturalismo y extranjeros*. Taurus, Madrid.
- Silveira Gorski, H.C. & Hobsbawm, E.J. (2000). *Identidades comunitarias y democracia*, Trotta, Madrid.
- Taylor, C. & Gutmann, A. (2009). *El multiculturalismo y "la política del reconocimiento"*. Fondo de Cultura Económica, México.
- Touraine, A. (1997). *¿Podremos vivir juntos?: iguales y diferentes*, PPC, Madrid.
- Zapata Solano, M. (2006). *Etorkinak eta hizkuntza-ereduak*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz.
- Zapata Solano, M. (2008). "Euskara, immigrazioa eta hizkuntza eskubideak" in *Euskara, immigrazioa eta hizkuntza eskubideak*, Ikuspegi, Bilbo.
- Zapata Solano, M. (2011). "Euskara eta immigrazioa" in *EAEko immigrazioari buruzko 2010eko urtekaria*, Ikuspegiak, Zarautz.
- Zapata Solano, M. & Albite Rueda, P. (2012). "Jatorri-aniztasuna eta hizkuntzak, estaturik gabeko nazioetan. Euskal Herriaren kasua". *INGURUIAK, Soziologia eta zientzia politikoaren euskal aldizkaria*, 55-56, 1656-1665, Bilbao.
- Zapata Solano, M. (2013). *Aniztasunaren gida = Guía de la diversidad = Guide de la diversité*, Gite-IPES, Bilbao.